

② Oihanaldean. 2.

Oh! ama gaixo hura, nola eta zoin maite zuen Piarresek, munduko erreginarik handienarentzat salduen ez baitzuen, segur! Eta hala hala, zer ama ez zion emana Jainkoak! Zilarra bezalakoa! Benik jakia bethi, bethi azkenik etzana. Ez iduri eta, pitta bat gehiago egun guzietz, higatuz bazoan, bethi bardin maitea, deusetaz errenkuratu gabe sekulan, higatzeko Jainkoak egin dituen ama on guziak bezala. Eta iduritu zitzaion Piarresi, bethi hola erdi-higatua baizik ez zuela ezagutu bere ama, haren lehen ile xuriari ez baitzitzaion ohartu ere sekulan!

Bere ustez segurik, ama maite horren amodioaz bertzerik ez zuen ordu-arte bihotzean; eta ama hura, sukilaren su-biziak mathe-lak gorriturik xutitu zenean, (erle bat kosoinean bezala) sukaldean harat hunat ibiltzeko, semea beha eman zitzaion maiteki; eta gauza horri oharturik, loriatu zen emazte gaixoa bere seme handiaren amodioaz... Eta, deusik erran gabe, sukar bat bihotzean, othoitz hau egin zion Piarresek Jainkoari: "Luzaz agian duzu gurekin utziko, luzaz agian hemen ahantziko!..."

Marie, su-ondoan hura ere, galtzerdi saretzen ari zen. Hala nik erran behar banu, ez zen baitezpada jendeek pullitak deitzen dituzten nexka gazte aros hetarik. Ez. Haren pullitasuna, kanpotik baino gehiago, heldu zitzaion barnetik; eta arima garbi garbi batek emaiten zioten haren gorputz gazteari —eta bereziki begieri maiteasuntan bereziana. Oihanaldearen gaineko zeru urdina bilakatu zuen hogoi urthe luzez begi hietan, eta zinez maitea zen Marie, bere eskualdun molde ederrarekin.

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. ez zion . 32. baitzitzaien .
33. bazoan . 34. behar banu .

31. UKAN - Conj. à double complément.

Indicatif - Imparfait - O.S. - C.I. Sing.

Hari = à lui

Nik nion = je le lui avais

Zuk zinion = vous le lui aviez

Harek zion = il le lui avait

Guk ginion = nous le lui avions

Zuek zinioten = vous le lui aviez

Heiek zioten = ils le lui avaient

Zuri = à vous

Nik nauzun = je vous l'avais

Harek nauzun = il vous l'avait

Guk ginauzun = nous vous l'avions

Heiek nauzuten = ils vous l'avaient

32. IZAN - Régime Indirect - Imparfait

Hura zen = il était

Hura (lui) zitzaitan = il m'était

" zitzaizun = il vous était

" zitzaion = il lui était

zitzaigun = il nous était

zitzaizuen = il vous était

zitzaien = il leur était

Guk ginen = nous étions

Guk (nous) gintzaizkizun = nous vous étions

gintzaizkion = nous lui étions

gintzaizkizuen = nous vous étions

gintzaizkien = nous leur étions.